

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure proiektua presa ekologiko baten diseinuan eta eraikuntzan oinarritzen da, pneumatiko birziklatuak erabiliz, barruan artilea eta beste hainbat material organiko erabiliz. Helburua da uraren kudeaketa hobetzea ingurumenarekiko errespetuz eta kostu txikian, material berrerabiliak eta naturalak erabiliz. Proiektu honen arrakastarako, bezeroekiko harremanak funtsezkoak dira, bai bezero berriak erakartzeko bai epe luzera mantentzeko.

Hasierako harremana pertsonala izango da, bezeroaren beharrak ondo ulertzeko. Horretarako, aurrez aurreko bilerak egingo dira, proiektuaren funtzionamendua, onurak eta inpaktu ekologikoa azalduz. Gure bezero nagusiak udalak, nekazariak eta ingurumenarekin lotutako erakundeak izango dira, eta bakoitzari bere lurraldearen eta ur-arazoen arabera egokitutako irtenbidea eskainiko zaio.

Bezeroari laguntza pertsonalizatua emango diogu prozesu osoan zehar: diseinuan, material egokien aukeraketan, presaren instalazioan eta ondorengo jarraipenean. Bezeroak ez du zertan eraikuntza-prozesu osoaz arduratu behar, guk zerbitzu integrala eskaintzen dugulako. Horrek konfiantza sortzen du eta gure proiektuarekiko atxikimendua handitzen du.

Gainera, komunikazio jarraitua mantenduko da bezeroekin, email-en, bileren eta txostenen bidez. Mantentze-lan periodikoak eskainiko dira, presaren egoera eta funtzionamendua egokiak direla ziurtatzeko. Era berean, lortutako emaitzen berri emango zaie, hala nola ur-mailaren kontrola edo presaren erresistentzia, proiektuaren balio erantsia erakusteko.

Azkenik, gure presa ekologikoak bezeroaren arazo zehatz bati erantzuten dio: uraren galera murriztea, uholde-arriskuak kontrolatzea eta ingurumenaren inpaktua gutxitzea. Helburuetako bat tokiko enplegua sustatzea da ahal den neurrian inguruko langileak kontratatuz mantentze-lanetarako adibidez. Inguruko enplegua sustatzeko sare sozialen eta beste hainbat moduren bidez gure lan-eskaintzen berri emango diegu eta gurekin email-aren edo sare sozialen bidez komunikatuko dira. Modu honetan, bezero berriak erakartzeaz gain, lehendik daudenak mantentzea lortzen dugu, konfiantzan, jasagarritasunean eta zerbitzu pertsonalizatuan oinarritutako harreman baten bidez.